

**Derioko Udalaren 2025-0120 Dekretuaren laburpena, 2025eko martxoaren 17koa, Derioko gazteentzako etxebizitzak alokatzeko laguntzak norgehiagoka bidez emateko deialdia onartzen duena.**

BDNS (Identif.):

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

**Lehenengoa. Onuradunak:**

Laguntza horietarako Oinarri espezifikotako 3.artikuluari ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak bakarrik izan daitezke onuradunak.

**Bigarrena. Helburua:**

Deialdi honen helburua Derion erroldatutako 18 eta 35 urte bitarteko pertsonentzako etxebizitzak alokatzeak eragindako gastuak diruz laguntzea da.

**Hirugarrena. Oinarri arautzaileak:**

Deialdiarekin batera argitaratuko dira.

**Laugarrena. Zenbatekoa:**

Aurrekontu kreditua 20.000 €koa da, 1500 48001 familientzako dirulaguntzak. Emantzipazioa partidaren kontura. Gehienez ere, errentaren % 50a lagunduko da diruz (kontratuko 300 €/hilabete, gehienez).

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea:**

Eskabideak aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 1etik irailaren 30era bitartekoa izango da.

Derio, 2025eko apirilaren 1a

Alkatea, Esther Apraiz